

UDAKO TRUMOI PASAKORRAK

Aurtengo udan be, izan ditugu bazkalondoan tximista ta trumoi pasakorrek. Gogoeta oneek be antzekoak dira.

Ez kurutzerik, ez lorarik...

Iru urteotan, Derioko Seminarioan, udako euskal ikastaroa egiten ibili izan naz. Ez noakizue ikastaroari buruz ezertxo ere esaten, bai, ostera, ikastetxeari buruz nai neuke zerbait esan. Etxe aundi orrek ez kanpotik ez barrutik, ez eukitekotan ez dauko ez jardirik ez lorarik ez zuaitz ganorazkorik. Seminario inguruan ez ezik, sarrerako arrizko eskaileretan bertan be sasia ta laarra ugari.

Etxe barrutik dotoretasun ta biguntasun are gitxiago. Amaibako pasillo illun ta ozminetan, ikasgela makets ta lausoe-tan, ez lora landararik, ez irudirik, ez poster miserable bat bera be. Ori bai, ikasgeletako ormetan, leenago kurutzen bat egon zan tokian, olako orbain aztarnak nabari dira. Non ta Derioko Seminarioan ez da ikasgeletan kurutzetxo bat ikusten.

Urtean zear, inoiz bertara deituak izan gara komunikabi-deen eragina dala ta. Ikusgailuen indarraz urdurituta etxeratu gara. «Oba iruditxo bat, milla berbatxo baiño». Olako eragiterik ez da ageri ikasgeletako orma ta pasilueta. Bertako arduradunak ez leukee denporarik galduko, euren seminaristak ikastetxe inguruak ta barruak apaintzen ta dotoretzen ipiniko balebez. Orretarako badaukeez ainbat oporraldi ta asti libre! Ala gaurko

gure seminaristak kale ertzetan saltoka, taberna zuloetan txurru-
tean ta itsas ondartzetan narrugorrian igaro bear ete dabez euren
oporraldiak ta asti libreak?

Karisma

Edonon ta edonori entzuten deutzazu: «orrek, bai, badauka-
la karisma». Zeintzuk dira, ba, «karismatiko» orreek? Klase asko-
takoak izan arren, badaukee olako azpiko-bardintasuna: naiago
dabe kanpolarrosa izatea, lan neketsuan ta izarditsuan parte ar-
tzea baino. Atseginago izaten jake esneberbetan ibiltea, esandako
berbak betetea baino. Zin egindako berba sakratuak jateko be
prest dagoz. Intsentzua upelka artzeko be gertu. Mezu ariñak,
sinpleak euren ezpanetan, bein ta barriro errepikatuak. Klitxe
xee ta arruntak erabilteko min labana. Mezu sakonak ta arra-
zoizkoak baztertzen maisu...

Zertarako jokabide karismatiko orreek? Inñor izurratzeko,
geienetan. Euron elburua izango da irabazi etsitu gabe, indarke-
rian jokatzan daben antzera. Orretarako guzurrezko panfletuak,
dilema faltsuak, pertsonifikazio ustelak, aobeteko abertsaletasu-
na. Biotzeko sentimenduak ta baita korputzeko beste atal batzuk
eraginkorragoak jakez, pertsonen inteligentzia ta buru argia bai-
no.

Erria arrazoiduna bada, gauzak arrozenatu egin bear jakoz.
Ez bada, ez da erria be, buru bako jentetza baino ez da. Olako
karismatikuak, mutilak dira erriaren eskubideak eurenganatzan.
Auteskundeak egin ondoren be, erriak or jarraitzen dau ta ez da
bereala lelotzen. Erriak aukeratzen baditu bere ordezkariak, po-
litikako ekintzak baino gauza serioagoak ta obeagoak beteteko
izaten da. Orrek ez dau esan gure, erriak bere eskubideak gal-
tzen dabezanik. Ez orixel! Erriak bere bideak sortu bear ditu, or-
dezkarien goraberak kontrolatzeko, bestela bere eskubideak
galtzeko arriskuan dago ta.

Bildurra ta amorrua deutset lider karismatikuei. Inñok ez
dau joko bat ganoraz irabazten besartetik ataratako karta bate-
gaz. Daukaguzan kartakin jokatu bear dogu ta inñok be ez ditu

eukiko eskuan karta guztiak. Erriaren aurrean gizonen egiteak balio dabe. Ez da ipini bear gizona bere egiteen aurretik. Orixe izan zan Nazaretarraren jokabide garbia: «egiten dodazan egintzak dira nitzaz autor egiten dabenak. Niri sinistu ezarren be, sinistu egizue eginakaitik» (jn. 10, 25.38) Jesus bai izan zala egiazko karismatikoa «frutuetatik ezagutzen da arbola ona». Ez da naikoa guzurra ta bitsa dariola ibiltea.

Karismak, Paulorentzat Jaungoikuaren doaiak dira baina erriaren serbitzurako, ez norbere serbitzurako. Istorian zear, gure erriak agertu ditu bere doaiak: «hizkuntza, lanerako jarrera, zintzotasuna, sendiaren esangura, bakoiztasunaren eta, bide batez, taldetasunaren eragina, natur giroa eta giro soziala, eta gaur eguneko gure gizartean zientziak eta teknologiak daukaten garrantzia» (L.B.U.) Doai orreen aurka doakiguna, ezin dau izan gure erriaren ordezkari.

Independentzia

«Gizona askatzen ez dan bitartean, ideologi aurrerakoekin ere ez dago iraultzarik» (EGUNA, uztailak 23). Ez jako falta arrazorik Orioko abeslari sonatuari. Askatasuna ez da or arrapatu ezinik dindilizka daukagun arribitxia. Askatasun iraultza «nork bere buruarekin bakarrik egin dezake» diñosku Benito Lertxundik.

Gizon askatuak falta jakoz gure erriari. Goitik beera manipulauta gagoz «Nora eguzkia, ara zapiak». Guztion ametsa independentzia da, baina ez edozelango independentzia, pertsona libreekin osotutako independentzia bear dau gure erriak. Ez nabil berba borobiletan galduta. Ez dago askatasunezko iraultzarik barruko ta kanpoko kateak apurtu barik. Pertsona aske batek bere buruaz pentsaten daki. Ta jakin badaki inoren menpetasun gabe bere pentsamentua agertzen.

Olako gizonekin desberdintasuna ugaritzen da ta ortik datorkio askatasunari bere bikaintasuna. Origaitik pertsona independenteak inoren independentzia errespetatzen maisu ditugu. Gauza bat zenbat ta leku geiagotik begiratu, ainbat obeto ikus-

ten da.

Gure artean, zoritxarrez, itzelezko adorea bear da norbere buruaz pentsatu ta besteen aurrean norberaren eritxiak agertze-ko. Ez da bat ere erreza, gaurko moda ta «erriaren izenean» egi-ten diran «manifa» zaratatsuen aurrean independente izatea. An-
dik ta emendik datoza zurrumurruen aurrean burua makur-
tzen ez badozu, «tiroien ta troianuen» aldetik sortuko dira sala-
ketak, irainak ta gibel jatea. Gure artean alkar ikusi ezinean bizi
diranak be, alkartuko dira oneen ta areen aldekoak ez badira.
Betiko jokabidea dirudi. Pilatos ta Herodes be Jesusen aurka
egiteko alkatu ziran, ain zuzen. Txarrena izaten da, olako per-
tsona zuzen ta libreak, talde batzuk euren probetxurako erabil-
ten dabezanian. Orretan badira talde «progreak» oso biziak. Ori
bai, «erriaren izenean» beti!!!

«Gizona askatzen ez dan bitartean, ez dago iraultzarik». Egi-
teetan agertzen dira gizon askatuak. Gizon askatuen frutuak,
Paulok diñoskunez, oneexek dira: «maitasuna, poza, bakea, biotz
aundia, biotz zabala, ontasuna, zintzotasuna, otzantasuna, neurri-
bidea» (Ga 5,22-23).

A. Olea